



**Sareen** sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

## Sareen Sareak proposamenak aurkeztu dizkio Gazteriaren Euskal Legeari

- Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialak etorkizuneko arauaren proiektuarekiko duen jarrera azaldu dio Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordeari.
- Gazteei premia bereziak dituzten kolektibo gisa dituzten eskubideak aitortzea eta egoera zaurgarrienean daudenei arreta berezia ematearen garrantzia gogorarazi du elkarteak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailak 22. [Sareen Sareak](#), Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko sareak biltzen dituen elkarteak, agerraldia egin du Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean, Gazteriaren Euskal Legea izango denari proposamenak aurkezteko.

Sareen Sareak ongietorria eman dio Legeari, "Euskadiko Gazteriaren Euskal Sistema artikulatzen eta nerabeen zein gazteen garapen pertsonal eta kolektiboan lagun dezakeelako".

"Gazteriaren Euskal Legea edukitzea **gazteen ikuspegia euskal politika publikoetan txertatzeko** bidean aurrera egitea da, gazteen ahalduntzea, garapena eta parte-hartzea helburu hartuta. Aldi berean, Euskadi hobea eraikitze bidean aurrera egitea ahalbidetzen du", adierazi du Sareen Sareak. Horretarako, arauak behar adina baliabide izatea funtsezkoa dela azpimarratu du erakundeak. "**Aurreikuspen ekonomiko egokia** behar da etorkizuneko gazte-politikak garatzeko".

Bestalde, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko erakundeek, "horietako asko gazteen ekimenetik bertatik sortuak", gazteriaren euskal strategiaren edozein esku-hartze ildotan proiektuak garatzen dituztela nabarmendu du Sareen Sareak. Ildo horiek lege-proiektuaren 18. artikuluan jasota daude eta, beraz, "Euskal administrazioen eta gazteriaren arloko hirugarren sektorre sozialaren arteko **lankidetzaren sustatzeko eta bermatzeko** behar diren organoak aktibatzearen" alde egiten dute erakunde sozialek.

Parte-hartze horren bidez, "**gazte guztiak aniztasun osoan integratzen**" laguntzea espero du Sareen Sareak, "**batez ere babesgabetasun, desberdintasun edo ahultasun egoeran daudenak**".

### Inklusioa eta parte-hartzea

Sareen Sareak Eusko Legebiltzarrean aurkeztu dituen proposamenak autonomia eta emantzipazioa erraztera bideratuta daude, baita gazteen sustapena garatzera eta euskal gazteen parte-hartzea handitzera ere. "Lehenik eta behin, Gazteen Euskal Legeak **gazte guztien arteko aukera-berdintasuna bermatu** beharko du, behar eta arazo zehatzak kontuan hartuta", adierazi du Sareen Sareak.



## Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

Zentzu horretan, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialak azaldu du "funtsezkoa" dela **estrategia espezifikoa** abian jartzea, gazte-talde zaugarrienei: hala nola, pobrezia eta bazterketa egoeran edo egoteko arriskuan daudenei; desgaitasuna duten gazteei; beste herrialde batzuetatik datozei edota genero-desberdintasuna pairatzen dutenei. **"Guztien beharrei erantzun behar zaie, inklusioa eta parte-hartzea bermatzeko"**.

Gainera, Sareen Sareak gazteria-politika berrikustea eskatu du, **garapen jasangarriaren ikuspegitik**, 2030 Agendaren helburuak betez. Era berean, legearen testua 12 eta 17 urte bitarteko pertsonentzat formatu "atsegin" batera egokitzeko proposamena helarazi dute gizarte-erakundeek, testuak errazago ulertzeko irisgarritasun kognitiboa ere kontuan hartuz.

Soraia Chacon Sareen Sareako presidenteordeak eta elkarteko Haurren eta Nerabeen Eskubideen Batzordeko bozeramaileek batzorde horrek egindako dokumentu bat aurkeztu dute, lege-proiektuaren artikuluei buruzko proposamen sorta bat jasotzen duena.